



IRAGARKIA

Alkateak 2026ko apirilaren 16an emandako dekretu baten bitartez Bergarako euskarari buruzko ikerketa-proiektuak sustatzeko Maria Oianguren saria arautzen duen deialdiaren oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen da:

Bergarako euskarari buruzko ikerketa-proiektuak sustatzeko Maria Oianguren saria arautzen duen deialdiaren oinarriak

SARRERA

Bergarako Udalak, herrian euskararen erabilera bultzatzearekin batera, Bergarako euskarari buruzko ikerketa ere sustatu nahi du, bereziki ikertzaile gazteen artean.

Sari honek Maria Oianguren irakaslearen izena hartu du, Bergaran euskararen erabilera sustatu duten emakume guztien omenez. Maria Oianguren izan zen Bergarako lehenengo ikastolako irakaslea 1933tik 1936ra bitartean eta hark ereindako hazi hark izan zuen eraginik frankismo garaiko euskarazko lehenengo eskolen sorreran.

Lehenago ere, Bergara aitzindaria eta, askoren esanetan, eredugarria izan da Euskal Herrian, herriari eta herriko hizkerari buruzko ikerketa eta argitalpenak bultzatzen eta bideratzen. Bide horretan jarraitu nahi du etorkizunean ere, eta horretarako Bergarako Udalak erabaki du bi urtean behin deialdi bat argitaratzea **Bergarako euskarari buruzko ikerketa-lanen eta master-amaierako lanen proiektuak** sustatzeko.

XEDEA

1-XEDEA

Ikerketa sariaren xedea **Bergarako euskarari buruzko ikerlanen eta master-amaierako lanen proiektuak** sustatzea da.

Hau da, **ikergaia *Euskara Bergaran*** izango da, baina hurbilketa edozein ikuspegitik eta edozein jakintza-alorretatik egin ahal izango da (hizkuntzalaritza, soziolinguistika, historia, soziologia, antropologia, etnografia, literatura, kazetaritza...). Esan bezala, 2026an ere ikergaia ***Euskara Bergaran*** izango da eta, besteak beste, euskararen gaur eguneko egoerarekin eta sustapenarekin lotutako gaiak landu ahal izango dira: euskara lan-munduan, gazteak eta euskara, euskararen transmisioa... Era berean, landu ahal izango da *Euskararen Historia Soziala XVII. mendera arte* ere, arlo horretan orain arte egindako lana osatze aldera.

Batez ere, gazteak eta unibertsitate-ikasketetan ibilbide luzeagoa abiatzekotan diren ikertzaileak erakarri nahi dira ikergai honetara, eta, horregatik, master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin, baina bestelako ikerlan monografikoen proiektuak ere aurkez daitezke. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua, hautagaia bera doktorea ez bada.



2- IKERKETA LANAREN JABETZA

Bergarako Udalak beretzat gordetzen du ikerketa osoki edo/eta partzialki argitaratu, erreproduzitu eta plazaratzeko eskubidea (paperean, digitalki...) 3 urtez. Epe hori igarota egileak bere lana argitaratzeko eskubidea izango du beti ere jaso zuen sariaren aipamena eginez.

Egilearenak izango dira sariarekin egindako lanaren gainean 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilearen bitartez onartutako Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateratuak autoreei aitortutako eskubideak, puntu honetako aurreko pasartean udalaren alde aitortutakoak izan ezik.

3-ARAUDI APLIKAGARRIA

Oinarri hauetan xedatua ez dagoenean honako araudia aplikatuko da:

- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erreglamendua onartzen duena.
- Bergarako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateratua, 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegilearen bitartez onartutakoa.

4-ESKATZAILEAK

Beka norbanakoek edo horretarako osatutako lantaldeek eskatu dezakete. Talde batek eskatuz gero, ordezkari bat izendatu beharko dute.

Unibertsitate-masterretako ikasleek aurkezturiko master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira.

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoan.
- Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergetan eta zergez aparte tasetan eta prezio publikoen ordainketan egunean egotea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13 artikuluko 2. eta 3. artikuluko adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2013 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan eta indarrean dagoen gainerako araudian onuradun izaera lortzeko adierazitako debekuetakoren batean ez egotea.

Proiektu proposamena, azken produktua eta haren laburpena euskaraz aurkeztu beharko dira.



5-IKERLANA AURKEZTEKO EPEA.

Sariaren irabazleak ikerlanaren azken emaitza eta haren laburpen bat (5-10 orrialdekoa) aurkeztu beharko ditu.

Ikerlanaren emaitza entregatzeko epea urtebetekoa izango da, saridunari esleipena jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita. Urtebeteko epe horretan ikerketa lana egin eta ikerketa Udalean entregatu beharko du. Horrekin batera, lana zabaltzeko proposamena aurkeztuko du (bideoa, erakusketa, liburua...), eta baita hori garatzeko beharko litzatekeen aurrekontuaren estimazioa ere.

6-ONARTUKO EZ DIREN PROIEKTUAK

Aurkeztutako proiektuek originalak izan beharko dute, aurrez publikatu gabeak. Ez da onartuko ez ikerketa honen edo antzeko xedea duen beste edozein ikerketaren aurreko deialdiren batean osorik edo zati batean saritutako lanik, ezta horien itzulpen, egokitzen edo aldaketarik ere.

7-ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskabideak eta gainerako agiriak, deialdia GAOn argitaratu eta gehienez 3 hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean, honako modu hauetakoren bat erabilita:

- Bergarako Udaleko Erregistro Nagusian (B@Z arreta zerbitzua) aurkeztuko dira, edo 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan aurreikusitako bitartekoetatik edozein erabiliz.
- Elektronikoki. Elektronikoki eskabideak aurkezteko, Udalaren egoitza elektronikora jo beharko da, haren web-orriaren bidez

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio. Hala egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere ebazpena emanda.

8-AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira (eskaneaturik, behar izanez gero):

1. Izena emateko eskaera-orria Udalak emandako ereduari jarraituz. (F0195 inprimakia).
2. Taldeen kasuan ordezkaritza agiria sinatu beharko dute taldekide guztiek (F0136A inprimakia). Dokumentu hori talde kide guztiek eta ordezkariak sinatuta egon beharko da.
*Aurreko bi inprimaki horiek interesatuen eskura egongo dira Bergarako udalaren web orrian eta Bergararren Arreta Zerbitzuan (B@Z).
3. Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia. Taldeen kasuan guztien Nortasun Agiriaren kopia.

4. Kontu korrontearen zenbakia eta titularitatea egiaztatuko duen agiria.
5. Bergarako Udalak Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasunerako Nodoaren (Nisae) bidez, eskatzaileak eta taldeko kide guztiek (hala dagokionean) zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela kontsultatu eta egiaztatuko du, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu era arrazoituan. Aurka egingo balu, Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu. Udalarekiko ordainketak egunean edukitzea ofizioz egiaztatuko da.
6. Egileari/ikertzaileari edo ikertzaile bakoitzari dagokion dokumentazioa
 - Eskatzailearen edo eskatzaileen CVa (ez da egiaztagiririk erantsi behar)
 - Espediente akademikoaren kopia, hautagaiak ikertzaile gazteak direnean, 25 urtetik beherakoak.
 - Matrikularen frogagiria, master ofizialetan matrikulaturik izanez gero.
7. Unibertsitate-irakasle doktore baten berme-txostena, ikerketa-lanaren zuzendari izango dela esanez (eskatzailea bera doktorea ez bada).
8. Ikerketa-proiektuaren eskema eta laburpena: ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (5000-7500 hitz).

9-IKERKETA SARIAREN ZENBATEKOA

Saria onartzen duenak 3.000 euro jasoko ditu. Gastua 1 3350.480.335.20.01 2026 (464) zenbakiko aurrekontu partidaren kontu izango da. Zenbateko horrek ikerketa-lana egitea eta haren laburpena prestatzea hartzen ditu barne; ez, ordea, lanaren zabalkunderako beharrezkoak izan daitezkeen baliabide edo gastuak.

Ekoizpen kostu oro ikertzailearen kargu izango da.

10-IKERKETA-SARIA/DIRULAGUNTZA JASOTZEKO MODUA

Ordainketak era honetan egingo dira:

- Kopuru osoaren %50, puntu gehien duen proposamena izanik sariaren onuraduna dela esanez jakinarazpena jasotzen denean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %50, ikerketa txostena Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu eta epaimahaiak ontzat ematen duenean.

Ordainketak egin baino lehen Bergarako Udalak Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasunerako Nodoaren (Nisae) bidez, eskatzaileak eta taldeko kide guztiek (hala dagokionean) zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela kontsultatu eta egiaztatuko du, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu era arrazoituan. Aurka egingo balu, Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu. Udalarekiko ordainketak egunean edukitzea ofizioz egiaztatuko da.

11-ESLEIPEN PROZEDURA

Dirulaguntza mota:

Norgehiagoka bidez ebatziko da deialdi hau, plan estrategikoan jasota dagoen moduan, Bergarako Udalak duen ordenantza orokorrarekin bat etorriz.



Hautaketa batzordea:

- Hautaketa-batzordea honako hauek osatuko dute, 2026ko deialdian:
 - Bergarako Udaleko euskara batzordeburua.
 - Bergarako Udaleko euskara zerbitzuburua.
 - Bergarako Udaleko euskara batzordeburuak proposaturiko hiru aditu (horietako bat gutxienez doktorea).

Balorazio irizpideak:

Proposamenak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:

- Proiektuaren helburuak eta interesa: gehienez 5 puntu.
- Proiektuaren ebaluazio orokorra (esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia): gehienez 5 puntu.
- Proiektuaren garapen-maila: gehienez 5 puntu.
- Proiektuaren bideragarritasuna: gehienez 5 puntu.
- Eskatzailearen edo eskatzaileen CVa eta espediente akademikoa: gehienez 5 puntu.
- Master amaierako lana izatea: gehienez 5 puntu.
- Ikergaia euskararen historia soziala Bergaran 1876tik 1940ra bitartean izatea: gehienez 5 puntu.

Ebazpen proposamena:

Epaimahaiaren balorazio proposamena kontuan hartu eta dagokion organo eskudunari helaraziko zaio, eta horrek ebazpena emango du.

Proposamen horretan aukeratutako pertsona edo taldea nor den adieraziko da eta ordezkoen zerrenda; baztertutakoen zerrenda, eta behar adina puntu lortu ez duenik egonez gero ere zehaztuko da.

Saria emateak ez du berekin ekartzen inolako lan loturarik esleipendunarekin; ondorioz, ez du betekizunik sortzen Gizarte Segurantzarekiko.

Ebazpena pertsona edo talde onuradunari jakinaraziko zaio. Ebazpenaren berri emango da, 39/2015 Legeko 45.artikuluaren eraginetarako, www.bergara.eus webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen.

Deialdia ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Behin epe hori igarota ebazpena ez bazaie jakinarazi eskatzaileei behar bezala, sari-eskaera ezetsizat jo ahal izango da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 25.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntzari dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun balioduneko epean uko egin ez badio, onuradunak izendapena onartu duela ulertuko da.

KONTROLA

12-AURKEZTU BEHARREKO LANAREN EMAITZA: IKERKETA

Bosgarren oinarrian adierazi bezala, sariaren irabazleak ikerlanaren azken emaitza eta haren laburpen bat (5-10 orrialdekoa) aurkeztu beharko ditu.

13-ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

- Oinarri hauetatik eratorritakoak onartzea.
- Eskatutako lanak aurrera eramatea eta aurkeztea.
- Lanaren kalitate minimoa bermatzea; hau da, lanaren kalitatea bat etortzea dirulaguntzaren helburu eta dotazioarekin.
Epaimahaiak dirulaguntza bertan behera uztea erabaki dezake interesdunari entzunaldia emanda. Hori horrela balitz, 14 puntuan jasotakoa kontuan hartuko litzateke.
- Saria emandako helbururako soilik erabiltzea eta, berariaz zehazten den egutegiari jarraikiz, Udalari egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri ematea, hark oniritzia eman diezaion.
- Aurreikusitako planean egindako aldaketen eta pertsona ikertzaile taldearen osieran gertatzen denaren berri ematea. Bergarako Udalaren oniritzirik gabe, ezingo da ikerketaren funtsezko elementuetan aldaketarik egin.
- Behin betiko ikerketa lana eta haren laburpena (5-10 orrialdekoa) entregatzea, Bergarako Udalean, paperean eta formatu digitalean.
- Egindako lanari buruzko iragarki orok Bergarako Udalak diruz lagundutakoa dela adierazi beharko du.
- Proiektuaren osotasunean genero ikuspegia bermatzea.
- Lana originala izatea bermatzea. Obligazio hori ez betetzeagatik izan litezkeen erreklamazio edo liskarren eraginez Udalari etor lekiokkeen diru-zama oro, sariaren hartzaileak hartuko du bere gain.
- Dokumentazio osoan hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu beharko da; irudiak edo materialak emakumeen edozein irudi diskriminatzaile, edo estereotipo sexista saihestuz eta berdintasun irudia, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero rolen aniztasuna eta ez estereotipua erakutsi beharko dute.

Betebehar hauek guztiak betetzen ez badira, sariaren onuradunek unean unera arte jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte.

14-ITZULKETAK ETA HORRETARAKO PROZEDURA

Ikerlanaren garapenean egin beharrekoak betetzen ez badira, ordu arte jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko du onuradunak

Itzulketari, edozein dela ere horretarako arrazoia, Bergarako Udaleko Dirulaguntzen ordenantza orokorrean jasotakoa aplikatuko zaio.



15- BERMEAK

Ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik udalaren aldeko bermerik eskatzea.

16-DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, sari hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeke behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

GINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HELEGITEAK

17-GINARRIEN INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Udalak erabakiko du. Deialdi honetan zehaztutako arauak izango dira interpretazioen oinarri.

18-GINARRIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertzeke errekurtsa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi errekurtsa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsa jarri ezingo denik.

Bergara, 2026ko apirilaren 20a

Alkateak